

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobemu Batzarrak 2025eko martxoaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena: Udalaren Autonomoentzako txeketa deituriko laguntza ekonomikoetarako programaren 2025ko deialdia eta oinarriak onestea

BDNS(Identif.): 827245.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/827245>).

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu Base Nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

Lehena. Onuradunak

Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a. LAABen alta eman zuteneko egunetik Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.
- b. LAABen alta lehenengo aldiz 2024ko otsailaren 1a baino geroago eman izana.
- c. Alta LAABen indarrean egotea, eta alta emanda egon izana, etenik gabe, 12 hilabetez gutxienez, lehenengo altaren egunetik. Baldintza hau ezinbestean bete behar da eskabidea egitean. Data batetik bestera zenbatuko da.
- d. Langile autonomoek garatzen duten jarduerari dagokion EJZren epigrafean eman beharko dute alta LAABen, eta etenik gabe alta emanda jarraitu. Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kide diren pertsonen kasuan, betekizun bera bete beharko da.
- e. Betebehar fiskalak beteta edukitzea Foru Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzeko prozesu osoan ere bete beharko da betekizun hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).
- f. Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekurik jaso ez izana, barne hartuta sexu-diskriminazioagatik edo gizon eta emakumeen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik gertatutakoak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena duena 23.2 artikuluekin bat.
- g. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko jasotako gainerako debekuetako batean ere ez egotea.
- h. Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak betetzea.

Bigarrenena. Xedea

Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

Vitoria-Gasteizko produkzio-ehunaren lehiakortasuna hobetzea.

Lan autonomia sendotzen laguntzea.

Oinarri hauen bidez, Gasteizen “autonomoentzako txekak” deritzen laguntzak konkurrentzia sinplearen erregimenean emateko baldintzak ezarriko dira; Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian (LAAB) lehen alta ematea finantzatzeko xedea izango dute laguntzek, gutxienez urtebetez altan egon badira.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomikook, konkurrentzia sinplearen erregimenean.

Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorriari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ko martxoaren 21ean onetsi zituen Autonomoentzako txekak deituriko laguntza ekonomikoetarako udal programaren 2025eko deialdia arautzen duten oinarriak.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2025erako onetsitako udal aurrekontuko 2025/0821.4331.489.50 partidaren kontura (“Autonomoentzako txekak, 2025”).

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2025eko irailaren 1etik 2025eko abenduaren 12ra.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko apirilaren 15a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko AOT*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ